

ARAUDIA: MUSIKAGELA MAILEGU ZERBITZUA
(ZUZENEKO ETA GRABATZEKO MATERIALA)



2022KO URTARRILA

1. SARRERA

Musikagelako entsegu aretoetako erabiltzaileen eta tokiko taldeen eskura jartzen da zuzenekoetarako eta grabazioetarako materiala duen mailegu-zerbitzu bat. Maileguaren bermetzat fidantza bat jarriko da gordailuan eta kuota bat kobratuko da materialaren mantentze-lanetarako.

2. ZERBITZUAREN FUNTZIONAMENDUA:

2.1. SARBIDEA

Materiala eskuratzeko, Musikagelaren zerbitzura sartzeko baldintza orokorrak bete beharko dira (taldearen % 50 Donostian erroldaturik egon behar da edo zerbitzuarekin eta hiriarekin bestelako lotura bat egiaztatu beharko da) eta gainera:

Musikagelan antolatutako oinarrizko prestakuntza-ikastaro batean parte hartu izana (mailegu-zerbitzuan eskuragarri dagoen materiala erabiltzeko eta zaintzeko ikastaroak). Mailegatzeko material-motari (zuzeneko edo grabaketa) dagokion ikastaroa egina izan beharko da. Ikastaro hau ez da nahitaezkoa izango soinuan prestakuntza teknikoa egiaztatzen dutenentzat.

Materiala ze proiektutarako eskatzen den zehaztu beharko da. Tekniko profesionalek edo enpresek ezingo dute materiala maileguan eskuratu euren jarduera profesionalarekin zerikusia duten proiektuetan erabiltzeko.

Mailegu-kontratua formalizatzeko, bandek pertsona bat izendatuko dute mailegatutako ekipoaren arduradun.

Grabazio-ekipo jakin bat Musikagelako instalazioetan bakarrik erabili ahal izango da (Egia eta Intxaurren K.E.).

2.2. EPEAK

Materiala egun naturalen arabera mailegatuko da eta gehienez ere 8 egunetara arte. 16 egunetara luzatu ahal izango da baldin eta beste erabiltzaile batek ez badu materialaren erreserbarik egin.

Elementu batetarako urtean gehienez 32 eguneko mailegua ezarri da erabiltzaile bakoitzeko.

2.3. ERRESERBAK

Erreserba formalizatzeko musikagelaren webgunean dagoen eskabide-inprimakia bete beharko da (www.musikagela.eus - Mailegu zerbitzua) eta musikagela@donostia.eus-era bidali.

Erreserbak aurrez aurre ere egin daitezke Egia Kultur Etxean, baina **aurretik hitzordua eskatu behar da 943 298 032 telefonoan.**

Mailegu-materiala erretiraten den egunean, **kreditu-txartelarekin ordaindu beharko dira alokairu-kuota eta fidantza.**

Erreserbak bi hilabete lehenago egiteko, **alokairu-kuota ordainduta utzi beharko da** (fidantzaren ordainketa ekipamendua jasotzen den egunean egingo da).

Erreserba 7 egun baino gutxiagoko aurrerapenarekin ezeztatzen bada, ordaindutako **alokairu-kuota ez da itzuliko.**

2.4. KUOTA

Elementu bakoitzaren mailegurako kuota bat ezartzen da, maileguaren **egun bakoitzeko erosketa-prezioaren % 1koa.**

Musikagela entsegu-aretoen erabiltzaileentzat erosketa-prezioaren % 1 izango da kuota maileguan emandako **lau eguneko.**

2.5. FIDANTZA

Elementu bakoitzak erosketa-prezioaren % 5eko fidantza izango du.

Materiala jasotzeko unean **erabiltzaileak zerbitzuaren arduradunarekin batera egiaztapena egingo du** elementu guztiak egoera ezin hobean daudela baieztatzeko.

Mailegatutako **materiala jasotako baldintza berean itzuli behar da** eta arduradunak egiaztatuko du itzultzeko unean. Kalteren bat ikusten bada, hondatutako elementuengatik jarritako fidantza itzultzeko eskubidea galdu egingo da, hargatik eragotzi gabe Donostia Kulturak elementuaren erosketa-prezio osoagatik erreklamazio bat egin ahal izatea, baldin eta haren erabilera arduragabea gertatu dela antzematen bada.

HARREMANETARAKO:

Telf. 943 298032

musikagela@donostia.eus

EGIA K.E. Baztan Kalea, 21 20012 Donostia

www.musikagela.eus